

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2021eko bilketa egiteko aldiari hasiera ematea

2021eko urriaren 10etik abenduaren 10era bitarteko egun baliiodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2021eko ordainagiriak.

Ordaintzeko tokia eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideraturik dagoen finantza erakundeetako kontuetan, 2021eko abenduaren 10ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (gaztigu oharrarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak:

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako errekarua gehituko zaie.

Legutio, 2021eko irailaren 16a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO